


2012ko urtarrilean industriako prezioek % 1,2 egin zuten gora, aurreko hilabetearen aldean

lazko datuekin alderatuz gero (2012ko urtarrila 2011ko urtarrilaren aldean), % 3,6 egin zuten gora

Euskal AEko industria prezioen indizea: EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek % 1,2 egin dute gora 2012ko urtarrilean, aurreko hilabetearen aldean. Datu horien arabera, azken hamabi hilabeteetako industriako prezioen aldaketa jaso duen urtarrileko urte arteko tasak % 3,6ko hazkundera izan du.

Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



(*) 2012ko urtarrila urte arteko hazkundera
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Sektore-azterketa zehatzagoak erakutsi bezala, 2012ko urtarrilean, eta aurreko hilabetearen aldean, honako adar hauek izan dute inflaziorik handiena: "Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza" (% 5,6), "Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak" (% 4,9) eta "Informatikako eta elektronikako produktuak" (% 2,3), besteak beste. Aldiz, prezioetan behera egin dute edo prezioetan igoera txikiagoak izan dituzte "Erauzteko industriak" (-% 1,1), "Material eta ekipo elektrikoa" (-% 0,1) eta "Garraiorako materialen fabrikazioa" (% 0,0) adarrek.

Urte arteko aldian, 2012ko urtarrila 2011ko urtarrilaren aldean, prezioen hazkunderik handienak ondoko adarretan gertatu dira: “Kokea lortzeko eta petrolioia fintzeko fabrikak” (% 17,8), “Energia elektrikoa, gasa eta lurruna” (% 9,0), eta “Industria kimikoa” (% 6,2). Kontrara, prezioetan behera egin dute “Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa” sektoreak (-% 0,7) eta “Farmaziako produktuak” izenekoak (-% 0,5).

Ondasunak xede ekonomikoaren arabera sailkatuta, urtarrilean sektore-talde handien prezioen bilakaera goranzkoa izan da denetan: Energiaren prezioak % 3,2 igo dira, Ekipamenduko Ondasunena % 0,9 eta Bitarteko Ondasunenak % 0,6; Kontsumo Ondasunen prezioak oro har % 0,8 igo dira, Kontsumo Ondasun Ez-Iraunkorren prezioek % 1,1 egin dutelako gora, eta Kontsumo Ondasun Iraunkorren prezioek ez dutelako aldaketarik izan (% 0,0).

Ondasunen multzo handi hauen prezioen bilakaera guztiak ere goranzkoak dira urte arteko aldian. Energiaren prezioak % 13,9 igo dira, Ekipamenduko Ondasunenak % 1,6, Tarteko Ondasunenak % 1,0 eta Kontsumo Ondasunenak % 1,3. Azken hauen artean, % 1,6 igo dira Kontsumo Ondasun Ez-Iraunkorren prezioak eta % 0,6 Kontsumo Ondasun Iraunkorrenak.

INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. 2012ko URTARRILA				
GOIBURUAK	INDIZEA Oinarria 2005=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
INDIZE OROKORRA	124,2	1,2	3,6	1,2
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	121,7	-1,1	0,2	-1,1
Manufaktura-industria	121,2	1,2	3,1	1,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	162,8	0,9	9,0	0,9
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondasunak	115,5	0,8	1,3	0,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	105,8	0,0	0,6	0,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	119,7	1,1	1,6	1,1
Ekipo-ondasunak	112,2	0,9	1,6	0,9
Bitarteko ondasunak	119,1	0,6	1,0	0,6
Energia	163,7	3,2	13,9	3,2

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari \(IPRI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen \(IPRI\) gaineko datu-bankua](#)